

KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK

AMEZKETA
2016ko APIRILAK 22
2016ko EKAINAK 01 (ONTZI ARINAK)

SPORA
INGURUMEN ZERBITZUAK

Hernani


Pg. Akarregi P-4 A · 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
Telefonoa 943 55 48 74 · fax 943 55 09 00
www.spora.es · spora@spora.es

AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	4
2.1	LANDA LANA	4
2.2	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK	5
2.2.1	Hondakin guztiak	5
2.2.2	Hondakin guztiak hildako animaliarik gabe.....	7
3	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA	10
3.1	LANDA LANA	10
3.2	EMAITZAK.....	12
4	ONDORIOAK	14
4.1	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	14
4.2	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA.....	15
5	2014-2016 URTEETAKO KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA	17
6	UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA	19
7	ERANSKINA	24
7.1	ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA	24
7.2	ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA.....	25

1 SARRERA


Amezketako udalak 942 biztanle ditu (INE. 2015), 20,58 kilometro karratuko hedadura (45,77 biztanle/km²) eta Tolosaldeko Mankomunitateak duen datu basearen arabera, 375 etxebizitza dauzka gaur egun. Etxebizitza hauetatik, 239k konpostatzen dute (etxebizitzaren %64a)



1. Abaltzisketa
2. Aduna
3. Albiztur
4. Alegia
5. Alkiza
6. Altzo
7. **AMEZKETA**
8. Andoain
9. Anoeta
10. Asteasu
11. Baliarrain
12. Belauntza
13. Berastegi
14. Berrobi
15. Elduain
16. Gaztelu
17. Hernialde
18. Ibarra
19. Ikaztegieta
20. Irura
21. Larraul
22. Leaburu
23. Lizartza
24. Orendain
25. Oresa
26. Tolosa
27. Villabona
28. Zizurkil

1. irudia: Tolosaldeko mapa

	Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra daukaten landa eremuko herriak.		Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten atez ateko herriak.
	Konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten landa eremuko herriak.		Bilketa ekarpen-guneko edukiontzietan eta konpostajea materia organikoa kudeatzeko osagarritzko bidea daukaten hiriak.



2. irudia: Amezketa Tolosaldeko mapan.

Amezketako udal hondakinak edukiontzien bidez biltzen dira: errefusa (edukiontzi berdea), papera eta kartoia (urdina), ontzi arinak (horia) eta beira (iglu berdea). Birziklagarriak diren edukiontziak irekiak daude eta errefusarenak berriz itxita, astean behin irekitzen direlarik. Landa eremuan, errefusarentzat edukiontzi txikiak dituzte eta giltzarekin irekitzen dira. Aurreko ikerketatik (2014) ez da aldaketarik egon ez errefusaren bilketa sisteman ezta errefusarentzako edukiontzien kopuruan ere.

Organikoa berriz konpostajearen bitartez kudeatzeko erabakia hartu dute, Amezketako etxebizitzaren %64k konpostajea egiten duelarik, eskuratutako datuen arabera.

Aurten, ontzi arinen karakterizazio bat egin du Eurocontrol enpresak eta hemen erakusten dira emaitzak. Karakterizazio honetan, Albiztur, Altzo, Amezketa, Berastegi, Berrobi, Elduain, Leaburu-Txarama, Larraul eta Lizartzako ontzi arinak ikertu dira.

2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

2.1 LANDA LANA

Errefusa biltzeko, bi edukiontzi daude, Eliz kalean eta Ergonen. Edukiontziak ostiral bikoitietan biltzen dira. Karakterizazioa egiteko, 2016ko apirilak 8an jaso zen errefusa azkeneko aldiz, errefusa biltzen den maiztasuna errespetatuz. Beraz, karakterizatutako hondakinak 14 egunetakoak izan ziren, apirilak 8 eta 21 bitartekoak, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, deskargatutako hondakin guztiak zabaldu dira eta behin laurdendu da, karakterizatutako pisua 301,74 kg-takoa izanik. Beraz, bertan deskargatu den hondakin kopurua 603 bat kg-takoa dela estimatzen da.



3. irudia: Hondakinen deskarga.



4. irudia: Laurdenketa.

HERRIA	EGUNA	ORDUA	IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK
AMEZKETA	2016/04/22	08:30 - 12:30	2
HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA	LAURDENKETA	BUKAERAKO PISUA	BETETAKO EDUKIONTZIAK
603,48	behin	301,74	11/2

1. taula: Laurdenketaren eta pisaldiaren datuak.

2.2 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOAREN EMAITZAK


Karakterizazioaren zehar azaldutako hildako animalien kopurua nahiko deigarria izanik (11,60 kilo, karakterizatutakoaren %3,84a), emaitzak bi moduetan azalduko dira atal honetan: horiek kontutan hartuta eta kontutan hartu gabe. Frakzio bakoitzeko emaitzak ikus daitezke hurrengo taulan. Frakzio nagusiak eta azpi-frakzioak daude zehaztuak bertan.

2.2.1 Hondakin guztiak

AMEZKETA 2016/04/22			
Frakzioa	Gaiak	Pisu garbia	%
Gai konpostagarriak			
1.Materia organikoa	1.1 Haragi eta arrain hondarrak	3,23	1,07%
	1.2 Sukaldeko hondar hezeak	13,14	4,35%
	1.3 Sukaldeko hondar lehorrak	4,05	1,34%
	Materia organikoa (denera)	20,42	6,77%
2.Frakzio begetala	2.1 Lorategiko eta baratzeako hondakin hezeak	14,96	4,96%
	2.2 Lorategiko eta baratzeako hondakin lehorrak	0,45	0,15%
	Frakzio begetala (denera)	15,41	5,11%
Gai konpostagarriak (denera)		35,83	11,87%
Frakzioa	Gaiak	Pisu garbia	%
Gai ez konpostagarriak			
3.Beira	3.1 Beira	0,77	0,26%
	Beira (denera)	0,77	0,26%
4.Papera & kartoia	4.1 Papera eta kartoia	5,84	1,94%
	Papera eta kartoia (denera)	5,84	1,94%
5.Ontzi arinak	5.1 Ontzi arinak	10,17	3,37%
	Ontzi arinak (denera)	10,17	3,37%
6.Errefusa	6.1 Errefusa: ehunak	3,81	1,26%
	6.2 Errefusa: pixoihalak eta sanitarioak	167,46	55,50%
	6.3 Errefusa: besteak	54,20	17,96%
	Errefusa (denera)	225,47	74,72%
7.Bereziak & arriskutsuak	7.1 Bereziak eta arriskutsuak	6,71	2,22%
	7.2 Tamaina handikoak	5,35	1,77%
	Bereziak eta arriskutsuak (denera)	12,06	4,00%
Gai ez konpostagarriak (denera)		254,31	84,28%
Frakzioa	Gaiak	Pisu garbia	%
Bestelakoak			
Bestelakoak	Hildako animaliak	11,60	3,84%
	Bestelakoak (denera)	11,60	3,84%
Bestelakoak (denera)		11,60	3,84%
Guztira		301,74	100,00%

2. taula: Amezketako emaitzak. Azpi-frakzio guztiak (Pisuak kg-etan)

Jarraian, datorren grafikoan, Amezetako karakterizazioan azaldutako azpi-frakzio guztien emaitzak adierazten dira.



5. irudia. Grafiko orokorra. Amezetako karakterizazioaren emaitzak gaika sailkatuak.

Hemendik aurrera, azaldutako hildako animaliarik gabe azalduko dira emaitzak.

2.2.2 Hondakin guztiak hildako animaliarik gabe

AMEZKETA 2016/04/22			
Frakzioa	Gaia	Pisu garbia	%
Gai konpostagarriak			
1.Materia organikoa	1.1 Haragi eta arrain hondarrak	3,23	1,11%
	1.2 Sukaldeko hondar hezeak	13,14	4,53%
	1.3 Sukaldeko hondar lehorrak	4,05	1,40%
	Materia organikoa (denera)	20,42	7,04%
2.Frakzio begetala	2.1 Lorategiko eta baratzeko hondakin hezeak	14,96	5,16%
	2.2 Lorategiko eta baratzeko hondakin lehorrak	0,45	0,16%
	Frakzio begetala (denera)	15,41	5,31%
Gai konpostagarriak (denera)		35,83	12,35%
Frakzioa	Gaia	Pisu garbia	%
Gai ez konpostagarriak			
3.Beira	3.1 Beira	0,77	0,27%
	Beira (denera)	0,77	0,27%
4.Papera & kartoia	4.1 Papera eta kartoia	5,84	2,01%
	Papera eta kartoia (denera)	5,84	2,01%
5.Ontzi arinak	5.1 Ontzi arinak	10,17	3,51%
	Ontzi arinak (denera)	10,17	3,51%
6.Errefusa	6.1 Errefusa: ehunak	3,81	1,31%
	6.2 Errefusa: pixoihalak eta sanitarioak	167,46	57,72%
	6.3 Errefusa: besteak	54,20	18,68%
	Errefusa (denera)	225,47	77,71%
7.Bereziak & arriskutsuak	7.1 Bereziak eta arriskutsuak	6,71	2,31%
	7.2 Tamaina handikoak	5,35	1,84%
	Bereziak eta arriskutsuak (denera)	12,06	4,16%
Gai ez konpostagarriak (denera)		254,31	87,65%
Guztira		290,14	100,00%

3. taula: Amezketako emaitzak. Azpi-frakzio guztiak, hildako animaliarik gabe (Pisuak kg-etan)

Frakzio nagusiei begiratzen badiegu, karakterizatutako hondakinen %12a gai konpostagarria dela esan dezakegu, horietatik %7a sukaldekoa (6. eta 7. irudiak) eta gainontzeko %5a lorategikoa ala baratzekoa (8. irudia) Organikoa konpostajearen bitartez kudeatzen dela kontutan hartuta, eta etxebizitzaren %64ak konpostatzen dutela oinarri hartuta, errefusaren edukiontzietan agertutako organiko kopuruaren emaitzak onak direla esan daiteke.



6. irudia: Sukaldeko hondar hezeak



7. irudia: Sukaldeko hondar lehorrak



8. irudia: Lorategiko hezeak

Beste material birziklagarrien emaitzei erreparatzen badiegu, berriz, ez dira oso kopuru aipagarriak aurkitu. Hala ere, errefusaren edukiontzian aztertutako hondakinen %6 inguru birziklatu litezke, ondoan kokatuta dauden edukiontzien bitartez jaso izan balira. Hau da, beira, papera eta kartoia eta ontzi arinak (plastikoa, filma, misto bezala sailkatzen diren ontziak, metalezkoak etab. barne), aztertutako hondakinen %0,27a, %2,01a eta %3,51 izan dira, hurrenez hurren.



9. irudia: Beira



10. irudia: Papera eta kartoia



11. irudia: Ontzi arinak

Bereziak eta tamaina handikoei dagokionez, 12 kg inguru aurkitu dira, %4,16a (bereziak %2,31a eta tamaina handikoak, %1,84a). Frakzio hau garbigunera eraman beharrekoa da.



12. irudia: Bereziak



13. irudia: Bereziak (2)



14. irudia: Tamaina handikoak

Azkenik, errefusari dagokionez, ia %78ra iritsi da. Pixoihalak eta beste ehun sanitarioak izan dira azpi-frakziorik handiena (167,46 kilo, aztertutakoaren %57,72a eta errefusaren %74a)




15. irudia: Ehunak



16. irudia: Sanitarioak



17. irudia: Bestelako errefusa



18. irudia. Grafiko orokorra. Amezketako karakterizazioaren emaitzak gaika sailkatuak (hildako animaliarik gabe)

3 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

3.1 LANDA LANA

Aurten, Eurocontrol-ek egindako ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak aurkezten dira txosten honetan. Karakterizazio honetan, Albizturren, Altzon, Amezketan, Berastegin, Berrobin, Elduainen, Leaburu-Txaraman, Larraulen eta Lizartzan bildutako ontzi arinak ikertu dira.

Azpi-frakzio ezberdinak sailkatu dira eta 3 talde nagusietan banatu dira: eskatutako materiala, eskatu ez den materiala (inpropioak) eta papera&kartoia (baita inpropioak ere) Eskatutako materiala 11 azpi-frakzio ezberdindu dira karakterizazioan baina 4 azpi-frakzioetan azalduko dira emaitzak. Inpropioei dagokionez, 5 azpi-frakzio ezberdindu dira papera&kartoian eta beste 17 gainontzeko inpropioetan. Emaitzetan 9 bakarrik azalduko dira.

Hurrengo taulan, karakterizazioaren zehar ezberdindu diren azpi-frakzioak (“ikerketan”) eta txostenean azalduko direnak (“Txostenean”) erakusten dira.

ESKATUTAKO MATERIALA	
Txostenean	Ikerketan
Plastikoak	Plastikoak PET
	Plastikoak PEAD naturala
	Plastikoak PEAD kolorekoak
	Plastikoak PVC
	Filmak (erabil bakarreko poltsak izan ezik)
	Filmak (erabil bakarreko poltsak)
	Gainontzeko plastikoak
Metalak	Altzairua
	Aluminioa
Brikak	Brikak
Egurra	Egurra
INPROPIOAK	
Txostenean	Ikerketan
Materia konpostagarria	Materia organikoa
	Lorategiko eta inausketa hondarrak
	Zelulosak
Beira	Beirazko ontziak
Papera & kartoia	Paper inprimitua
	Puntu berdea dituen etxeko ontziak
	Puntu berdea ez dituen etxeko ontziak
	Puntu berdea dituen ontzi komertzialak
	Puntu berdea ez dituen ontzi komertzialak
Bestelako plastikoak	Ontziak ez diren plastikoak (zabor poltsak izan ezik)
	Zabor poltsen filmak
	Ontzi komertzialak ala industrialak (filmak izan ezik)
	Film komertzialak ala industrialak
Bestelako metalak	Altzairua, ez ontziak
	Altzairuzko ontzi komertzialak ala industrialak
	Aluminioa, ez ontziak
	Aluminiozko ontzi komertzialak ala industrialak
Egurra	Egurra, ez ontziak
	Egurrezko ontzi komertzialak ala industrialak
Ehunak	Ehunak
Obra hondarrak	Obra hondarrak
Besteak	Aipatzeko karakterizazioaren arabera

4. taula: Ontzi arinen karakterizazioetan ezberdindu diren azpi-frakzioak.

Urnietako plantan egin da karakterizazioa, 2016ko ekainak 01ean eta ia 250 kg ikertu dira.

3.2 EMAITZAK


Hurrengo tauletan frakzio bakoitzeko emaitzak ikus daitezke. Frakzio nagusiak daude zehaztuak bertan. Komentatu den bezala, bertan sailkatu diren 33 azpi-frakzio 13etan elkartu dira emaitzen azalpena errazteko. Frakzioen koloreak mantendu dira emaitzak azaltzeko: ontzi arinen horia eta inpropioen grisa.

TOLOSALDEA II (OA) 2016/o6/o1			
	Gaia	Pisu garbia	%
Eskatutako materiala (%80,34)	Plastikoak	115,73	46,32%
	Metalak	31,99	12,80%
	Brikak	26,38	10,56%
	Egurra	0,21	0,08%
Inpropioak (%19,66)	Materia konpostagarria	8,72	3,49%
	Beira	5,37	2,15%
	Papera & kartoia	11,60	4,64%
	Bestelako plastikoak	35,46	14,19%
	Bestelako metalak	0,27	0,11%
	Egurra	0,00	0,00%
	Ehunak	6,74	2,70%
	Obra hondarrak	0,00	0,00%
	Besteak	7,37	2,95%
Guztira		249,84	100,00%

5. taula: Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak (Pisuak kg-etan)

Eskatutako materiala %69,77a izan da eta inpropioak, berriz, %30,23a. Inpropiorik handienak bestelako plastikoak izan dira (ontziak ez diren plastikoak, zabor poltsak, filmak etab., karakterizatutakoaren %14,19a) Jarraian, papera&kartoia (%4,64a), materia konpostagarria (%3,49a), besteak (RAEE (hondakin elektronikoak), ontziratuta zeuden likidoak eta solidoak, ibilgailuen hondakinak etab., %2,95a), beira (%2,15a)

Azpi-frakzioen grafikoa erakusten da hurrengo irudian. Horiaren tonu ezberdinak erabili dira eskatutako materialaren azpi-frakzioentzak eta beste frakzioentzat, dagokien koloreak:



19. irudia. Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen grafiko orokorra.

4 ONDORIOAK


4.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

Ondorio nabarmenenak emaitzak aztertzerakoan atera dira, datu esanguratsuenak hurrengoak dira:

- Karakterizatutako hondakinen %12a gai konpostagarria da, eta gehiengoa (%7a) sukaldeko materia organikoa da. Hobetu daitekeen arren, datu onak direla esan daiteke.
- Gai birziklagarrien presentzi baxua: karakterizatutakoaren %0,27a beira, %2,01a papera eta kartoia, eta %3,51a ontzi arinak, hain zuzen ere.
- Errefusaren presentzi nabarmena, aztertutako hondakinen %77,71a izan da.

AMEZKETA 2016/04/22	
Frakzioa	%
1.Materia organikoa	7,04%
2.Frakzio begetala	5,31%
3.Beira	0,27%
4.Papera & kartoia	2,01%
5.Ontzi arinak	3,51%
6.Errefusa	77,71%
7.Bereziak & arriskutsuak	4,16%
Guztira	100,00%

6. taula. Datu orokorrak



20. irudia. Amezketako datu orokorrak (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)

Datu hauekin atera daitezkeen ondorio aipagarrienak horrela laburbiltzen dira:


- Errefusean agertutako organikoaren portzentajeak positiboak diren arren, konpostajearen jarraipena egitea gomendatzen da konpostatzaileen motibazioa ez galtzeko helburuarekin eta organikoaren kudeaketa egokia bermatzen jarraitzeko, konpostatzen ez duten etxebizitzetan ezarketaren errefortzua eginez.
- Gai birziklagarrien (beira, papera eta kartoia eta ontzi arinak) sailkapena bultzatzen jarraitu.
- Garbigunera eraman behar diren hondakinak eta ehunen edukiontzietara bota behar direnak hobeto identifikatzen lagundu behar da.
- Hildako animaliak aztertutako hondakinen zati handi bat suposatzen dute pisuan. Hauen kudeaketa nola egin zehaztu beharko litzateke eta kudeaketa honen inguruan herritarrak informatu.

4.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

- Edukiontzi horira zuzen botatako hondakinen portzentajea %69,77a izan da. Inpropioak, berriz, %30,23a izan dira, portzentaje nahiko altua.
- Datu hauek hobetzeko asmoz, ontzi arinetara bota behar ez diren hondakinak ezagutzen erakusten jarraitu behar da.

TOLOSALDEA II (OA) 2016/o6/o1	
Frakzioa	%
Eskatutako materiala	69,77%
Inpropioak	30,23%
Guztira	100,00%

7. taula: Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzak (eskatutako materiala vs inpropioak)



21. irudia: Ontzi arinen karakterizazioaren emaitzen grafikoa (eskatutako materiala vs inpropioak)

5 2014-2016 URTEETAKO KARAKTERIZAZIOEN ARTEKO ALDERAKETA

Aurreko fasean egindako karakterizazioan (2014ko abenduak 3an), ia 828 kilo hondakin bildu ziren eta, behin laurdendu ondoren, 414 ikertu ziren. Aurtengo fasean, berriz, ia 604 kilo bildu dira eta erdia ikertu da, 302 kilo, %27 bat gutxiago. Hala ere, aurreko fasean ikertutako materiala 19 egunetakoa izan zen (43,58 kg/egun) eta aurtengoa, berriz, 14-takoa (43,14 kg/egun). Beraz, ezin da esan gaur egun lehen baino errefusa gutxiago biltzen denik Amezketan.


Aurtengo ikerketan azaldu diren frakzioen ehunekoak ez dira asko aldatu 2014tik, hildako animaliak izan ezik. 2014ko ikerketan %0,72ko proportzioan azaldu ziren eta aurtengoan, berriz, %3,84koan. Hauek kenduta, bi ikerketen arteko aldeak ez dira nabarmenak izan.

Frakzio konpostagarriaren barruan, organikoa jaitsi da (%7,04 aurten versus %8,37 2014an) baina lorategiko igo da (%5,31 aurten eta %2,59 2014an) Orokorrean, %1,39 igo da materia konpostagarriaren ehunekoa.


Frakzio birziklagarrien ehuneko guztiak jaitsi dira 2016an 2014ko emaitzekin alderatuta: %0,79 bat beira gutxiago, %0,08 papera/kartoi gutxiago eta %1,23 gutxiago ontzi arinetan. Orokorrean, %2,11 bat jaitsi dira 2014 eta 2016 bitartean.

Frakzio konpostagarri eta birziklagarrien ehunekoak jaitsi direnez, errefusarena, logikoki, igo behar da. Hala ere, oso txikia da aldea, %0,90koa. Errefusa, %76,81 izan zen 2014an eta aurten %77,71ra igo da. Azpi-frakzioka, ehunak %4,40 jaitsi dira, sanitarioak igo diren proportzioa, %3,99. Bestelako errefusak, beraz, ia mantendu du ehunekoa.

Bukatzeko, berezi eta arriskutsuen frakzioaren ehunekoa ere mantendu da: %4,36 2014an eta %4,16 aurten.



22. irudia. Amezketako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak)



23. irudia. Amezketako 2014ko eta 2016ko karakterizazioen arteko alderaketa (frakzio nagusiak, hildako animaliarik gabe)

6 UDALERRIEN ARTEKO ALDERAKETA

Jarraian, Amezketako datuak aurkezten dira, landa eremuko udalerriekin alderatuta, Andoaingo datuak ere sartu dira materia organikoa kudeatzeko sistemarik ezarrita ez duen herri batekin alderatu ahal izateko ere. Gai nagusien portzentajeak adierazi dira, herri bakoitzean atera diren hondakin bereziak (hildako animaliak, obra hondarrak, etab.) kontutan hartu gabe.


Landa eremuko udalerri gehienek organikoa kudeatzeko konpostajea ezarri dute sistema bakar moduan, eta askok errefusaren ekarpenak mugatzeko neurriak hartu dituzte.

Herri guzti hauen karakterizazioen emaitzen grafiko orokorra erakusten da hurrengo irudian. Datu garrantzitsuak ikustea zaila denez, grafiko ezberdinak erakutsiko dira frakzio batzuk azalduz.


Konpostajea materia organikoa kudeatzeko bide bakarra duten herri gehienetan, honen kudeaketa berezia nabaritzen da frakzio konpostagarrien ehunekoetan, nahiz eta kasu batzuetan (adibidez Alkiza, Asteasu, Belauntza, Leaburu) nahiko handiak izan diren. Amezketako datuak aztertzen baditugu, datu onenak atera dituen udalerrietan kokatzen da, organikoa %12,36 suposatu duelarik. Bestalde, eta osagarritzko bidekoen barruan bertako sistema bereziak dituen herrietan (Albiztur eta Berrobi) emaitza onak azaltzen dira, talde osoko frakzio konpostagarrien batezbestekotik azpitik.

Gai birziklagarriei dagokionez, lan handia egin behar dela ikusten da orokorrean. Herri hauetan azaldutako frakzio birziklagarriaren proportzioa (hondakin bereziak barne) errefusetik sailkatutako hondakinen %20 inguruan kokatzen da. Amezketan berriz, %9,94, batzuetatik nahiko urrun. Orokorrean herri hauetan frakzioka, beira hobea sailkatzen dena dela ematen du eta, hala ere, %2,38 bat azaldu da orokorrean. Hurrengoak, hondakin bereziak izango lirateke %3,87 batekin. Jarraian papera eta kartoia (%4,50a) eta, orokorrean gertatzen den bezala, okerren sailkatzen den frakzio birziklagarria ontzi arinena izan da talde honetan ere, taldeko osoren batezbestekoa %8,78a izanik, baina maximoa Gaztelukoa (%24,67a) dela kontutan harturik. Bestalde, gogoratu behar da portzentajeak pisuei dagokiela, beraz ontzi arinen kasuan kantitate handietan agertzen direla esan behar da. Beiraren kasuan berriz, emaitzak hobeak diren arren, beti agertzen dira.


Amezketan beraz datuak oso positiboki baloratzen dira, Albizturrekin batera, errefusean gai birziklagarri ehuneko txikiak aurkitu baitira.



24. irudia. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain (grafiko orokorra)



25. irudia. Herrien arteko alderaketa, landa-eremua eta Andoain (errefusa versus materia konpostagarria)



26. irudia. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain (frakzio birziklagarriak, hondakin bereziak barne)

BIDE BAKARRA + OSAGARRIZKO BIDEA	MATERIA ORGANIKOA	FRAKZIO BEGETALA	BEIBA	PAPERA & KARTOIA	ONTZIARINAK	ERREFUSA	BEREZIAK
ADUNA	9,32%	4,11%	2,60%	5,31%	7,61%	70,31%	0,73%
ALKIZA	23,82%	20,00%	1,90%	3,00%	7,01%	33,33%	11,53%
ALTZO	16,44%	3,56%	1,08%	1,65%	4,00%	71,18%	2,08%
AMEZKETA	7,04%	5,32%	0,27%	2,01%	3,51%	71,71%	4,15%
ASTEASU (herrigunea)	40,79%	5,43%	2,38%	3,70%	11,26%	32,91%	3,52%
ASTEASU (landa eremua)	31,45%	3,98%	1,45%	3,38%	11,78%	38,74%	9,22%
BELAUNTZA	30,22%	14,49%	3,75%	6,06%	8,10%	32,81%	4,56%
BERASTEGI	6,01%	8,13%	0,50%	1,95%	3,19%	70,85%	9,30%
ELDUAIN	16,19%	4,15%	1,35%	4,40%	8,41%	63,92%	1,57%
GAZTELU	32,85%	0,75%	6,55%	5,76%	24,67%	26,01%	3,41%
HERNIALDE	24,54%	6,49%	5,26%	7,02%	12,23%	40,45%	4,02%
LAPRAUL	26,56%	2,10%	2,55%	2,76%	9,17%	54,70%	2,56%
LEABURU	42,52%	5,26%	1,06%	7,12%	12,57%	29,57%	1,00%
LIZARTZA	14,12%	0,07%	1,75%	2,97%	7,68%	71,05%	2,35%
ORENDAIN	16,65%	0,40%	0,21%	4,07%	2,99%	73,43%	2,24%
OREXA	13,76%	5,69%	5,26%	6,85%	8,91%	56,83%	2,71%
ALBIZTUR	9,34%	2,00%	0,44%	3,54%	5,05%	78,81%	0,83%
BERROBI	15,62%	2,83%	1,06%	4,54%	8,63%	62,95%	4,37%
ABALTZISKETA	38,04%	14,15%	3,91%	7,76%	10,40%	22,50%	3,23%
BALIARRAIN	22,58%	15,74%	2,98%	4,49%	5,61%	43,17%	5,42%
ANDOAIN (orokorra)	55,14%	1,16%	3,28%	6,09%	11,62%	20,10%	2,62%
BATEZBESTEKOAK	23,47%	5,99%	2,38%	4,50%	8,78%	51,02%	3,87%

8. taula. Herrien arteko alderaketa, landa eremua eta Andoain.

7 ERANSKINA

7.1 ERREFUSAREN KARAKTERIZAZIOA

HERRIA	AMEZKETA	EGUNA	2016/04/22	ORDUA	08:30 - 12:30
KOKAPENA	Eliz kalea Ergone	IKERTUTAKO EDUKIONTZIAK	2	BETETAKO EDUKIONTZIAK	11/2
HASIERAKO PISUAREN ESTIMAZIOA	603,48	LAURDENKETA	behin laurdendua	BUKAERAKO PISUA	301,74
IKERTUTAKO MATERIALA	14 egunetakoa, apirilak 8 eta 21 bitartekoa, apirilak 8ko goizean jaso baitzen errefusa azkeneko aldiz, bilketaren egutegia jarraituz				
OHARRAK					
ORDENA	GAIA	TARA	PISU GORDINA	PISU GARBIA	OHARRAK
1	6.2	0,00	80,24	80,24	poltsa handietan
2	2.1	1,35	6,68	5,33	
3	6.3	0,00	8,10	8,10	
4	6.3	1,35	14,98	13,63	
5	6.3	1,35	13,54	12,19	
6	6.1	1,35	5,16	3,81	
7	6.2	1,35	17,58	16,23	poltsa txikietan
8	6.2	1,35	9,40	8,05	poltsa txikietan
9	6.2	1,35	15,52	14,17	poltsa txikietan
10	6.2	1,35	15,34	13,99	poltsa txikietan
11	6.2	1,35	14,06	12,71	poltsa txikietan
12	6.2	1,35	15,20	13,85	poltsa txikietan
13	h.a.	0,00	11,60	11,60	argazkirik gabe: USAINA!!!!
14	2.1	1,35	10,98	9,63	
15	2.2	1,35	1,80	0,45	
16	1.2	1,35	9,18	7,83	
17	5.1	2,70	9,10	6,40	
18	6.3	1,35	8,30	6,95	
19	4.1	1,35	2,88	1,53	
20	1.3	1,35	5,40	4,05	
21	1.1	1,35	4,58	3,23	
22	7.2	1,35	6,70	5,35	
23	6.2	2,70	10,92	8,22	
24	6.3	1,35	14,68	13,33	
25	3.1	1,13	1,90	0,77	
26	4.1	1,35	5,66	4,31	
27	1.2	1,35	6,66	5,31	
28	5.1	4,05	7,82	3,77	
29	7.1	1,13	7,84	6,71	5,64 kg kableak
GUZTIRA				301,74	

9. Taula. Errefusaren karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.

7.2 ONTZI ARINEN KARAKTERIZAZIOA

FICHA DE MUESTRA



Planta:	Urnieta	Fecha:	01/06/2016-08:50
Empresa:	EUROCONTROL, S.A.		

Unidad de	Mancomunidad de Tolosaldea	Periodo:	May - Ago 2016
Unidad Administrativa:	Comunidad Autónoma del País Vasco	Estado:	Cargada
Unidad de Gestión:	Mancomunidad de Tolosaldea	Proc. Facturación:	Variable
Nº Muestra:	3		
Tipo de Caracterización:	Recogida Selectiva EELL		
Tipo de Muestra:	Entrada en Instalación		
Tipo de Recogida:	Envases Ligeros CARGA LATERAL		
Matrícula Vehículo:	2774FYS	Kg Vehículo:	3540
Observaciones:	Procedencia: Tolosaldea. Ruta: Albiztur, Alzo, Amezketa, Berastegi, Berrobi, Elduain, Leaburu-Txerama, Larraul y Lizarza. Desgloses en Kg: (1) Otros: Líquido contenido en envase: 1,86. Multimaterial: 2,39. Resos de medicamentos: 0,11. RAEE: s: 0,13. Sólido contenido en envase: 0,85. Vidrio no envase: 0,48. Restos de pintura: 0,20. Material inclasificable del que se ha separado la totalidad de la fracción envase: 1,35.		
Vehículo Rec:	No		
Observ Vehículo Rec:	Porcentaje de llenado: 90%.		

Resultado de la Muestra

Material	Cantidad (kg)	Peso (%)
Material Solicitado	174,31000	070
Plásticos PET	30,19000	012
Plásticos PEAD Natural	2,38000	001
Plásticos PEAD Color	7,82000	003
Plásticos PVC	,02000	000
Plásticos Film (excepto bolsas de un solo uso)	47,27000	019
Plásticos Film bolsas de un solo uso	10,63000	004
Plásticos Resto de Plásticos	17,42000	007
Metales Acero	26,82000	011
Metales Aluminio	5,17000	002
Cartón Bebidas / Alimentos	26,38000	011
Madera	,21000	000
Material No Solicitado	75,53000	030
Material No Solicitado (Excepto Papel/Cartón)	63,93000	026
Materia orgánica	4,26000	002
Resto de jardín y podas	1,45000	001
Celulosas	3,01000	001
Textiles	6,74000	003
Madera no envase	,000	000
Madera Envase Comercial/Industrial	,000	000
Vidrio (envases)	5,37000	002
Plásticos No Envase (Excepto Film Bolsas de Basura)	17,24000	007
Film bolsas de basura	5,02000	002
Plásticos Envase Comercial/Industrial (Excepto Film Comercial/Industrial)	7,84000	003
Film Comercial/Industrial	5,36000	002
Resto de obras menores	,000	000
Acero no envases	,17000	000
Acero Envase Comercial/Industrial	,000	000
Aluminio no envases	,1000	000
Aluminio Envase Comercial/Industrial	,000	000
Otros (indicar significativos)	7,37000	003
Papel/Cartón	11,6000	005
Papel Impreso	8,7000	003
Envase Doméstico con Pto. Verde	1,12000	000
Envase Doméstico sin Pto. Verde	1,08000	000
Envase Comercial con Pto. Verde	,000	000
Envase Comercial sin Pto. Verde	,7000	000
Total	249,84000	100

10. Taula. Ontzi arinen karakterizazioaren frakzioen pisaldiak.